

## **FITXA: 237 - ARABA - Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan obra txikiak 2027an gauzatzeko laguntzak.**

<b>Nori zuzendua:</b> Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillak, Kontzejuak eta Udalak (Gasteizkoak izan ezik) Obra Txikiak Burutzeko Programako laguntz baliatu ahal izango dira.	
<b>Deialdia:</b> ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala	<b>Deialdiaren data:</b> 2026/05/29
<b>Sarbide-esteka:</b> <a href="https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-obras-menores">https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-obras-menores</a>	
<b>Erreferentziazko araudia:</b> 323/2026 Erabakia, maiatzaren 26koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. <a href="https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/061/2026_061_01557_e.pdf">https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/061/2026_061_01557_e.pdf</a>	
<b>Eragin eremuak:</b> Udal azpiegiturak	
<b>Zenbatekoa:</b> 2.213.277,00 €	
<b>Aurkezteko lehen eguna:</b> 2026/05/30	<b>Aurkezteko azken eguna:</b> 2026/06/30
<b>Aurrerakina:</b> Ez da zehaztu.	<b>Aurrerakinaren gehieneko %a:</b> Ez da zehaztu
<b>Gehieneko zenbatekoa:</b> 35.000,00 €	<b>Gutxieneko zenbatekoa:</b> Ez da zehaztu.
<b>Tramitazioa:</b> Norgehiagoka.	

### **Laburpena**

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei obra txikiak egiteko programaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko 2027ko deialdia.

### **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

- 1.- Obra hauek egiteko laguntza jaso ahal izango da programa honen bidez:
  - Hornidura edota saneamendu sareen zati baten konponketak, hautemandako gabezien ondorioz.
  - Zoladuraren zati konponketak.

- Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 19/2010 Foru Arauko 7. artikuluko 3. atalean jasotako ekipamenduen konponketek, birmoldaketek, teilatuek, ordezkatzek edo berrikuntzek, baita hiriguneetan dauden aisiako edo jolaseko espazioek ere (zabuek, ekipamendu ludikoek, hiri altzariek).

- Bideak, bidexkak, errekek, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

- Elementu txikitat hartutakoen eraikinetan konponketak burutzeko, teilaberritzeko edo zenbait elementu ordezkatzeko edo berritzeko obrak.

- Eraikin publikoetan komertzioak jartzearen alde egiteko jarduerak burutzera.

- Programa honetako laguntza lerroen bidez diruz lagundutako obren jarraipena edo osagarria diren jarduerak.

2.- Edozein kasutan, dirulaguntza jasotzen duten jardunak ondasun publikoetan egingo dira, haien titulartasun publikoa toki erakunde eskatzaileari dagokionean eta herriguneen barruan daudenean.

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu

## **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Ez da zehaztu

## **Gastuetarako aldi hautagarria**

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketak amaitzeko azken eguna 2027ko azaroaren 30a da. Epe horretarako aurkeztu beharko da, halaber, lan horiek egin izana justifikatzeko dokumentazioa, zeina nahikoa izan beharko baita dirulaguntza kalkulatzeko eta dirulaguntzaren ordainketaren izapideak egiteko.